



Plazaola, berdeguneak eta Donejakue bidea, turistentzat deigarriena

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Bisitari gehienak kataluniarrak
eta madrildarrak izan dira

IGOERA ▶ Atzerritarren kopurua

hirukoiztu egin da uda honetan
bi eskualdeetan ▶ 4

LEITZA ▶

Aurrerak
lehen
garaipena
eskuratu du

San Inazio taldearen
aurka 2-0 irabazi
zuten Arrizurieta
mutilek ▶ 7



Espainiako Kopako 3. proban, Karrera bigarren

AMEZKETA ▶ Palentzian (Espainia) korritu zuen, pasa den igandean, Iker Karrera mendi lasterkariak Espainiako Kopako 3. proba. Hirugarren da orain sailkapen nagusian eta urriaren 8an korrituko du Kopako laugarren eta azken proba. HITZA ▶ 6

VILLABONA - ZIZURKIL ▶

Euskara ikasteko eskaintza bateratua luzatu dute bi Udalek

Matrikulazio epea ireki dute, bereziki,
euskaraz ez dakiten gurasoei
eta etorkinei zuzenduta ▶ 2

ZIZURKIL ▶

«EHNA erabiltzearen garrantzia», etziko jaialdiaren mezua

Euskal naziotasuna aldarrikatzeko egunak urte guztian
zehar eskualdean eginiko egitasmoak borobilduko ditu ▶ 3

www.saldias-miguel.com

Saldías Miguel
ASEGURUAK

- Tolosa 943 65 11 89
- Beasain 943 08 56 00
- Orain Anoetan 943 69 80 04

**Kotxe, motor
eta furgonetak
-% 60**

Etxebizitza, komunitateak, komertzioak, enpresak,...

VILLABONA - ZIZURKIL ▶ KULTURA

Euskara ikasteko matrikulazio epea zabaldu dute Zizurkilen eta Villabonan

Zizurkilgo eta Villabonako Udalek euskara ikasteko eskaintza bateratua luzatu dute; matrikulazioa gaurtik hasita hilaren 22ra arte egongo da zabalik



Ikasturte berriaren xehetasunak azaltzeko atzo eginiko prentsaurrekoa; ezker-eskuin, Maria Angeles Lazkano eta Bakartxo Tejeria. M. SOROA

MADDI SOROA

Eskerrak emanez hasi zuten Bakartxo Tejeria Villabonako alkateak eta Maria Angeles Lazkano Zizurkilgo alkateak, atzo Villabonako udaletxeko bilkura aretoan buruturiko prentsaurrekoan. Zergatia, euskara ikasteko ikasturte berria zabaldu dutela. Beraz, 2006-07 ikasturtean zehar

euskara ikasi nahi duen orok Villabonako edota Zizurkilgo Udaletako euskara zerbitzuetara joan eta bertan eman beharko du izena. Gogoratu irailaren 22ra arte egongo dela zabalik izena emateko epea.

Udalak matrikulazioaren %75a ordaintzeko aukera eskaintzen du. Horretarako, ordea, honako baldintzak bete beharko lituzke: Zizurkilen edo

Villabonan erroldatua egotea; eskoletan gutxienez %85eko asistentzia izatea; irakasleen aldeko txostena izatea errendimenduari dagokionez eta matrikula ordaindua izatea.

Eskoletara joan ezin dutenentzako ere bada aukerarik, izan ere, internet bidez euskara ikasteko aukera eskaintzen da, *autoikaskuntza*ren bitartez. Tejeriak adierazitakoaren ara-

bera, «euskaraz ikasi nahi duenak bideak irekita ditu». Era berean, «euskara ikastea ez dela erraza» onartu zuen Villabonako alkateak, baina, «jendea euskara ikastera animatzeko» deia luzatu zuen.

Euskara ikasteko aukera lagun orori luzatu bazaio ere, eskaria zabaltzerakoan bi multzo aipatu zituen bereziki Tejeriak. Batetik, etorkin eta atzerritarren multzoa, «euskara nortasun agiria» izanik, euskaraz hitz egiten ikasita «herrian integratzeko aukera errazagoa eta arinagoa» izango dutelakoan. Bigarren multzoa, haur txikiak izan baina euskaraz ez dakiten gurasoei dagokie; izan ere, kasu hauetan «euskararen bidea moztu» egiten da.

Bi herrietako alkateak ados agertu ziren euskara ikastea «esfortzu handia» dela adierazterakoan. Horregatik, euskara ikasten dutenen ahalegina eskertu nahi izan zuten.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak, udaletxera joan eta euskara zerbitzuetan eska dezake ikastaroen inguruko informazioa.

IBARRA ▶

Haurrentzako herri kirolak plazan, bihar

Bihar, arratsaldeko bostetan, 11 eta 17 urte bitarteko haurrentzat herri kirolak izango dira San Bartolome plazan. Txingak, gizon proba, soka tira, kokkolak eta beste hainbat joko izango dituzte bertan. Giro polita eta ondo pasatzeko aukerarik ez da falta, beraz. Herri kirolen ekitaldi hau Ibarako Udaleko gizarte zerbitzuak antolatu du. Nura gizarte elkarteak, hain zuzen ere. Elkarte honek Ibarako udaletxean dihardu lanean eta heziketaren inguruan murgiltzen da beraien lana. Nura elkarteak haur eta gazteak animatu eta herri kirolatan parte hartzeko deialdia egin du.

TOLOSA ▶

Mendiko haur bizikleta gorria aurkitu dute

Pasa den irailaren 10ean —igandea— Decathlon markako mendiko haur bizikleta gorria aurkitu zuten Tolosan. Orain, ordea, Tolosako Udal-tzaingoaren egoitzan dago, Donostia etorbidean, hain zuzen ere. Inork mendiko haur bizikleta gorria galdu izan balu, pasa dadila Udal-tzaingoaren egoitzatik bizikleta hartzera. Argibide gehiago eskuratzeko ere, bertaratu eta eskatu informazio gehiago.

TOLOSA ▶

Zeinu hizkuntza ikastaroan izena emateko aukera

Tolosaldeko-Goierriko Pertsona Gorren Elkarteak zeinuen hizkuntza ikasteko aukera eskaintzen du Tolosan. Aipatu ikastaroa urriaren 2an hasiko da eta amaitu, berriz, ekaineko lehen astean. Goizez edota arratsaldez izango dira eskolak. Argibide gehiago 943 67 03 81 edota 666 63 71 58 zenbakietara deituta eskura daitezke honako ordutegietan: goizean, 08:30etik 14:30era; arratsaldean, berriz, 15:30etik 18:30era. Aipatu, ikastaro honen bitartez eskuratzen den ziurtagiria Madrilgo CNSEK baliosten duela. Euskadiko Gorren Federazioa erakunde horren barnean dago, hain zuzen ere.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira.

Tabernaria. Neska eskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Ileapaindegia. Eskarmentudun langilea behar da ileapaindegirako. 625 70 50 59.

Zaintzailea. Neska eskaldun bat behar dut haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 638 18 52 05.

SALGAI

Furgoneta. Furgoneta salgai. California 2,5 TDI.Extrak. 50.000 km. 2003koa. Interesatuak deitu 685 75 17 43 telefono zenbakira.

Argazki kamara. Nikon D50 reflex digitala salgai, 18-50 eta 50-200 objektiboak, 1GBeko kartela eta poltsarekin. Oso egoera onean. Interesatuak deitu 600 26 00 85.

Txakurkumeak. Setter Ingeles (Levelin) arrazako bakurkumeak salgai. Txertatuak. Gurasoak oilagoretan trebeak. Deitu honako telefono zenbaki hauetara: 647 14 40 70 edo 678 06 63 96.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Hainbat aukera dituzu HITZAren webgunean parte hartzeko. Eztabaidak eta inkestak daude, alde batetik. Albisteak idazteko ere aukera duzu, bestetik, *Zeuk idatzi* atalean. Edo, bestela, argitaratutako albisten inguruan iritzia eman dezakezu. Zeura da hitza. Animatu eta parte hartu webgunean zure iritzia zein den adieraziz.

ZIZURKIL ▶ POLITIKA



Zizurkilgo jaietan, abutzuan, euskal naziotasuna aldarrikatzeko egindako herri kirol proben une bat. HITZA

«EHNA erabiltzearen garrantzia», etziko jaialdiaren mezua

Azken urtean eskualdean egin dituzten egitasmoak borobilduko ditu euskal naziotasuna aldarrikatzeko egunak

IMANOL GARCIA

«EHNA egin eta erabiltzearen garrantzia helarazi nahi diegu herritarrei jaialdi honekin», azaldu dio Iñaki Aristeta adunarrak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI, etzi Zizurkilgen egingo den euskal naziotasuna aldarrikatzeko ekitaldiaren inguruan. Jaialdiko bultzatzailetako bat eta Tolosaldeko Bai Euskal Herriari herri ekimeneko kidea da Aristeta. Bere esanetan, «EHNA herritarrei eskaintzen zaien tresna bat da, Euskal Herria nazioa dela praktikan jartzeko tresna bat».

Azken urtean Tolosaldean hainbat ekimen egin dira

EHNAren inguruan. Alde bate-tik, ahal den herritar gehienek EHNA bera egitea, baina baita erabilera bultzatzeko ekimenak egitea ere. Ia bikoiztu egin da azken urtean egin direnen kopuruak eta egun 3.500 txartel daude Tolosaldean. Eskualdeko 27 herritan posible da EHNA egitea.

Erabilera ekimenei garrantzia eman diete eta, esaterako, Eroskin erosketak egin zituzten EHNA erakutsiz, edo mendizale batzuk ibilaldi bat egin zuten, aurretik Espainiako nortasun agiria zakarrontzira bota eta gasolindegri batean ordainketa egiterakoan EHNA erakutsiz. «EHNA erabiliz soilik bizi

direnak badaude», dio Aristetak. Bai Euskal Herriari herri ekimenak kideak ditu Tolosaldeko herrietan eta taldeak ere bai. Ibarren eta martxoan Villabonan osatu zena. Bestalde, Zizurkilgo eta Adunako jaietan ere ekimenak burutu zituzten.

Hilabete hauetan egindako lana borobiltzeko izango da etzi egingo duten jaialdia, Tolosaldeko hainbat herritarrek bultzatuta. 19:00etan hasiko dute herri kirolekin, euskal selekzioak aldarrikatuz. 20:00etan ekitaldia egingo da frontoian *Nazio bat garelako*, *EHNA erabiliz bizi!* lelopean. Ondoren afaria eta afalostean kantaldia izango dute.

ZIZURKIL ▶ LITERATURA

Hernandorena V. Ipuin Lehiaketa abian da

Azaroaren 28a dute azken eguna idazleek beren lanak entregatu ahal izateko

ERREDAKZIOA

Jendearen artean idazteko zale-tasuna sustatu nahian, Zizurkilgo Udaleko Euskara Sailak Teodoro Hernandorena V. Ipuin Lehiaketaren deialdia egin du. Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek har dezakete parte.

Ohi bezala, lehiaketa bost mailetan banatuko dute. A mailakoek (6-8 urte) orrialde bat egin behar dute; B mailakoek (9-11 urte) 2 orrialde; C mailakoek (12-13 urte) gutxienez 2 eta gehienez 4 orrialde; D mailakoek (14-16 urte) gutxienez 4 eta gehienez 8 orrialde; eta E mailakoek (17 urtetik gora) gutxienez 5 eta gehienez 12 orrialde. Kasu guztietan DIN A-4 neurrian aurkeztuko dira eta makinaz edo ordenagailuz idatzita.

Aurkezten diren lanek egile bakarra izan behar dute eta

partaide bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake. Gaia librea izango da eta euskaraz idatzi behar dituzte lanak. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dituzte azaroaren 28ra bitartean, egun hori barne, 14:00ak baino lehenago, Zizurkilgo udaletxean edo udal bulegoetan.

Lanak entregatzeko moduari dagokionez, izenburuaren alboan, egilearen izen goitia eta adina jarri beharko dituzte, egilearen nortasuna gorde-tzeko. Lanekin batera, gutun-azal itxi bat aurkeztuko da. Horren barnealdean lanaren egilearen izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta adina jarri beharko dituzte. Gutun-azalaren kanpoaldean, berriz, lanaren izenburu berbera eta egilearen adina soil-soilik. Bi sari banatuko dituzte mailako E, D, eta C mailako lehen saridunek edo ordenagailuz idatzita.

ANOETA ▶

‘Etxetik eros ezazu’ mintegia KZgunean, bihar

Anoetako KZgunekak tutorea-ren bisita jasoko du, bihar, 16:00etatik 20:00etara. Tarte horretan bi orduko mintegia emango du, 17:00etatik 19:00etara. *Etxetik eros ezazu* da mintegiaren izenburua. Ohi bezala ez dago izena eman beharrik mintegian parte hartzeko. Nahiko da ordurako KZgunera joatea mintegia jasotzeko.

KOMUNIKABIDEAK ▶

Aldundiak 22.198 euroko laguntza eman dio HITZARI

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurten ere eman dio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN enpresari diru laguntza, honek euskarazko komunikabideen alde egiten duen lana aitortuz. Egunkaria eta webagatik 22.198 euro eman dizkio, hain zuzen. Dena dela, HITZAK iaz baino 523 euro gutxiago jasoko ditu aurten Foru Aldunditik.

iragarki laburrak ▶



Anoeta. Duplexa, estreinatzeko garajearekin.
Baribar. Borda 2.000 m²-ko lur-sailen. Berritua.
Belautza. Bifamiliarra, bi solairu eta 270 m²-ko lur sailarekin.
Belautza. Bi pabiloi, bulegoak, bainugelak, eta abar.
Berastegi. Familia bakarrarentzako txaleta, 3.500 m²-ko lur sailarekin.
Donostia. Antigua, Eskolta Real. Etxebizitza eraberritua, kanpoaldera.
Hormilla (Errioxa). Najeratik 3 kilometrora. Etxebizitza adosatua,

lorategiarekin, terrazarekin eta igerilekuarekin. 160.000 euro.
Alkiza. Familia bakarerrako txaleta, 4.000 m²-ko lur sailarekin, hiru solairukoa. Bakoitzak 120 m² ditu.
Irura. Laskibarreko zonaldean, 3 logelako etxebizitza, garajearekin.
Tolosa. Zumalakarregi. 150 m²-ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran.
Tolosa. Pablo Gorosabel, erakuntza berriko azken apartamentua, 65 m² erabilgarri.
Tolosa. Pablo Gorosabel, logela

bakarreko apartamentua, garajea hartzeko aukerarekin.
Tolosa. Zabalaretan, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, terraza, bainugela, komuna, trastelekua eta garaje itxiarekin.
Tolosa. Pablo Gorosabel, 50m²-ko bulegoa alokera.
Tolosa. Errementari kalean, 3 logelako atikoa, egongela, sukaldea eta bainugela. Berritua.
Tolosa. Belate pasealekuan, trasteleku berriak, argia, aire erauzgailuak. 9.480 eurotatik.

Tolosa. Maituna lokal zaharrea, 15 garage itxi berri salgai aurki; 30 m²-tik hasita, sarrera karga-jasogailuarekin. Erakuntza laister.
Tolosa. San Esteban. 100 m²-ko kanpokalderako etxebizitza, konpondu beharra.
Tolosa. Araba etorbidean, 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, komuna, bainugela, terraza, 25 m²-ko lokala eta garajea.
Tolosa. Aldaba, bi etxebizitzetan banandutako baserria, konpondu beharra.

TURISMOA ▶

Espainiako bisitarien kopurua hirukoiztu egin da uda honetan

Donejakue bidea, berdeguneak eta Plazaolako bidea izan dira nagusiki, bisitariak ezagutu nahi izaten dituztenak



Anoetatik igarotzen da eskualdeko Donejakue bidea; turistek honenganako jakinmina erakutsi dute. I. GARCIA

ESTI EZEIZA

Opor garaia amaitu da, eta eskualdeko turismo bulegoekin hitz egin du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. Hauek luzatutako datuen arabera, uda honetan, lehengo urtean baino bisitari gehiago izan ditu Tolosaldeak eta Leitzaldeak.

Tolosaldeari dagokionez, ohikoa den bezala, bisitari gehienak Kataluniatik etorri dira. Tolosaldea Tourrekoeen esanetan, «kataluniarrek Euskal Herriarekin duten jakinmina ez da gutxiagotu: aldearantz, handiagotu egin da».

Hori bera adierazten dute estatistikek: aurten, bisitarien kopurua %10a igo da.

Bestetik, Madrilgo turistei dagokionez, igoera azpimarragarri bat eman da. Denboraldi honetan, iazko datuekin alderatuz, bikoiztu egin da kopurua.

Orokorrean, Espainiatik datozen bisitarien kopurua hirukoiztu egin da. Eta Tolosaldea Tourrekoeen ustez, honek Autonomia Erkidego ezberdinetako jendearen etorrerari dagokio, Andaluziatik, Valentziatik, Aragoiatik eta Kanariar irletatik datozenei, esaterako.

Nazioarteko bisitariak dagoakionez, kopurua mantendu egin da. Bestalde, munduko oso leku ezberdinetatik datoz, esaterako, Alemaniatik, Italiatik, Erresuma Batuak edo Iberoamerikatik.

Euskal Autonomia Erkidego zifrak kontuan hartuta, ez da aldaketa handiegirik egon, Bizkaiko kasua izan ezik. Izan ere, hango bisitarien kopurua bikoiztu egin da, eta gainontze-koena mantendu.

Lierni Telleria Tolosaldea Tourreko langilearen arabera, «aurten, familian eginiko turismoa areagotu da». Askok ne-

DATUAK ▶

LEITZALDEAN

Euskal Autonomia Erkidegotik etorritakoak. 1.776 bisitari.
Nafarroatik etorritakoak. 1.560 bisitari.
Kataluniatik etorritakoak. 1.891.
Madrilgo turistak. 514.
Valentziatik etorritakoak. 661 bisitari.

kazal turismoak aukeratu dituzte beraien egonaldirako. Izan ere, bi familien artean etxe oso bat hartzeko aukera dago, honela, «prezios ondo ateratzen delarik». Lierni Telleriak azaldu duenez, «bisitarien gehiengoak kostaldera joateko ohitura badu ere, barnealdea ezagutu nahi izaten dute, paisaia berdez gozatzeko».

Ezin ahaztu, hala ere, Euskal Herriaren gastronomiak duen pisua, hala, hona etortzen denak, badu hemen ondo jaten denaren berri. Horregatik, turismo bulegoetara informazio bila joatean, «inguruko jatetxeen berri galdetzen dute, otordu bikain bat egiteko asmoz».

Bestetik, Done Jakue bideak interesa piztu du eskualdekoengan, eta jende ugari hurbiltzen da, «batez ere, askok orain arte ez zekitelako hirigunetik pasatzen zela».

Leitzaldeko datuak

Plazaolako Partzuergo Turistikotik jaso ahal izan dugun informazioaren arabera, Leitzaldera hurreratu diren gehienak kataluniarrek izan dira. Osora, ekaina, uztaila eta abuztua bitartean 7.590 lagun pasa dira Lekunberriko Turismo bulegotik. Hauetako gehienak Espainiakoak izan dira. Baina hala ere Europako beste herrialdeetatik ere etorri dira. Horien artean, 227 holandar, 121 frantses eta 78 italiar.

Turismo Bulegora hurbildu diren bisitariak, batik bat eskatu duten informazioa Natur Bideen gainekoa izan da; kasu honetan Plazaolako bidearena.

AISIA ▶

‘Egin kantu!’, Betizuen saio berrirako castinga

ERREDAKZIOA

Datorren irailaren 28an, 17:00etatik aurrera ETBko Betizu saioak *Egin Kantu!* saioa grabatuko du Tolosan. Hori dela eta, eskualdeko haurrei parte hartzeko aukera luzatu nahi izan die. Abeslari finenak aukeratzeko casting bat egingo dute. Proba hau, hil honen 15ean, 16:30etik aurrera, Kultur Etxean izango da. Hala, bertan parte hartu nahi duten haurrek, 8 eta 16 urte bitartean izan beharko dituzte, eta gustuko den abestia ongi prestatuta eraman beharko dute.

KULTURA ▶

III. Graffiti Lehiaketako finalistak, erabakita

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketak baditu finalistak dagoeneko. Larunbatean egindako dute, Tolosan. Bizkaitik etorriko dira: Garikoitz Arregi berriztarra; Gorka Gonzalez Ermuakoa; Eva Mena eta Asier Lopez bilbotarrak eta Maider Celada Arrigorriakoa. Gipuzkoatik berriz: Imanol Aizpurua, beasaindarra; Iñaki Herrero herriarria eta Iñaki Uriarte Arrasatekoa.

Azkenik, zazpi gasteiztar lehiatuko dira: Egoitz Konte, Xabier Sagasta, Jorge Martin, Davir Celaya, Yosu Izarra, Ander Garrosa eta Javier Agirre.

hitza
argazki lehiaketa
bidali argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info



Sari nagusia

2. saria

ZOKETA APARTAK

Asteburua Euskal Herriko landetxe batean

Plaza Etxeberri jatetxean afaria

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILA
guztien artean HITZaren mobilta eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

750. URTEURRENA ▶

Aspertzeko betarik gabe

Tolosa hiribildu izendatu zutenetik 750 urte beteko dira gaur; horren harira ekitaldi ugari antolatu dituzte herrian

ERREDAKZIOA

Gaur beteko ditu Tolosak 750 urte hiribildu izendatu zutenetik. Hori dela eta, hamaika ekitaldi antolatu dituzte herrian, egun guztian zehar. Hala, gazte nahiz heldu izango dira protagonistak gaurkoan. Hona hemen guztiak zehaztuta:

10:00etatik 12:30era. Alhondigan globo aerostatikoa jarriko dute, eskolako haurrek bertan igotzeko aukera izango dutelarik. Halaber, umeentzat hainbat ekintza antolatu dituzte, herriko gune desberdinetan: txikieneztat haur jolasak egingo dituzte, Euskal Herria Plazan; ertainek, berriz, Tolosako Tribiala inauguratuko dute, Triangulo Plazan; eta handienek Tolosako begirato-kietatik zehar ibilbidea egingo dute eta *Esperientziak* proiektuko bideoak ikusi ahal izango dituzte.

12:00etan. Kanpaien biratzea egingo dute, herriko eliza guztietan. Ordu berean, *Esperientziak* proiektua inauguratuko dute Aranburu Jauregian eta Gipuzkoako Artxibategi Orokorrean. XX. mendeko memoria historikoa berreskuratzeko proiektua da hau, 70 urtetik gorako Tolosaldeko pertsonen egindako elkarrizketen bidez eta garai hartako argazkiak berreskuratuz. Halaber, Zerkausi eraberritua irekiko dute tolosarrentzat ordu berean.

18:30ean. Ezker abertzaleak deituta, konzentrazioa egingo dute Leidor aretoaren parean, *750 urte eta gero... Euskal Herria bizirik* lelopean.

19:00etan. Eguneko ekintza nagusia Leidor aretoan, publiko guztiari zuzendua. Tolosako alkateak, Jokin Bildarratzek, Udaltzatzaileak eta dantzariak agintariei harrera egingo diote.



Hodeiartz abesbatzak abestuko du Leidor aretoan egingo den 750. urteurrenoko ekitaldi nagusian. HITZA

Alkateak Juan Jose Ibarretxe Lehendakariari aginte-makila emango dio. Bertan, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Ahalduen Nagusia ere egongo da. Edurne Ormazabal kazetaria izango da ekitaldi honen aurkezlea eta Ertaroko Historian aditua den Elena Barrenak Herri Gutuna irakurriko du eta Ertaroko herrien sortze-ari buruzko hitzaldia emango du. Jarraian, Tolosako alkateari eta lehendakariari emango zaie hitza. Ekintza nagusi hone-

tan Hodeiartz abesbatzak abestuko du.

20:00etan. Agintariak Santa Maria Parrokiara joango dira, non Felipe Gorritik konposatutako Tedeum-a interpretatuko duen Santa Maria Kaperak.

22:00etan. Su artifizialen ikuskizuna izango da Zumardi Txikian, Caballer pirotekniaren eskutik.

22:15ean. *Esperientziak* soinu

eta irudi ikuskizuna eskainiko dute, Triangulo Plazan. Alos Quartet hari instrumentuko laukoteak girotuko du ekitaldia. Arantxa Iturberen *Kontu jaten* liburitik ateratako hainbat pasarte dramatizatuko dituzte. 30 minututako bideo bat ere proiektatuko dute, egindako elkarrizketetatik hautatutako zati batzuekin. Horrekin guztiarekin batera Tolosako historiaren argazki batzuk proiektatuko dituzte pantaila erraldoi batean.



Deustako
Unibertsitatea
Donostia

Giza Zientzien
Fakultatea



Nahi al duzu zure prestakuntza osatu lizentziatura batekin?

Zure diplomatura bukatu baduzu edo edozein lizentziaturatako lehengo zikloa bukatu baduzu;

Orain zure prestakuntza osa dezakezu bi diziplina hauetakoren bateko lizentziaturarekin:

- ▶ Enpresa. (HUEM)
- ▶ KomuniKazioa. (HUCO)

Matrikula epea zabalik

Informazio gehiago: Giza Zientzien Fakultatea
Mundaiz, 50-20012 Donostia
idiez@ud-ss.deusto.es

943 326 284 - 943 326 288 www.humanidades.deusto.es

AMEZKETA ▶ MENDI LASTERKETA

Karrerak bigarren egin du Espainiako Kopako 3. proban

Palentziako maratoian Garciaren atzetik ailegatu zen, hiru minutuko aldearekin



Bigarren izan da Iker Karrera asteburuan; argazkian, kirolaria Aizkorriko maratoian. HITZA

NEREA URBIZU

Iker Karrera amezketarrak bigarren egin zuen Espainiako Kopako mendi lasterketako hirugarren proban, pasa den igandean. Maratoi hau Palentzian (Espainia) egin zuen, Santibañez de la Peña inguruko mendietan. Alpino del Fraile maratoia bezala da ezaguna.

Lehenengo postuan Raul Garcia sailkatu zen, «lasterketetako faborittoa, zalantzarik gabe», Karrerak aurreko batean esan bezala. Sailkapenean hirugarren, aldiz, beste faboritotetako bat izan zen, Tofol Castanyer kataluniarra, alegia. Aipatzekoa ere, laugarren Fernando Etxegarai beratarra izan zela, Euskadiko selekzioko beste korrikalari bat.

Lasterketa hasi eta kilometro oso gutxira lehenengo lau lasterkariak beste guztietaz be-

reiztu egin ziren, eta lasterketaren erdialdera arte elkarrekin joan ziren. Etxegarai atzerago geratu zen, sabeleko mina baitzuen.

Sailkatutako lehen hiruren arteko lehia izan zen orduan.

IKER KARRERA ▶ MENDI LASTERKARIA

«Nire beldurra besteek hasieratik jarriko zuten erritmoa izan zen»

N. Urbizu ▶ Munduko Kopa alde batera utzita buru-belarri Espainiako Kopa lortzeko ari da lanean Iker Karrera (Amezketaketa, 1975). Dagoeneko lau lasterketatatik hiru egin ditu, eta beti lehenengo zazpiren artean bukatu du.

Espero al zenuen bigarren egitea?

Beno, uda osoa eman dut lasterketa hau prestatzen. Palentzian joan nintzen espreski proba nolakoa zen ikustera eta horrek asko lagundu nau. Lasterketa igandean lasaigo egin nuen, ustekaberik gabe eta ja-

Azkeneko aldapan Castanyer atzean geratu zen, eta Garciak eta Karrerak jarraitu zuten. «Raulek aurrera egin zuen: banekien hori, indartsuago dagoelako. Nire kezka atzekoa zen, Tofolena, alegia». Erritmoari

kinda nolakoa zen. Besteek ez zuten egin eta nabaritzen zen. **Zer abantaila izan duzu eta zeri beldurra?**

Korrikalari askok ez zuten indarra edo abiadura neurtzen jakin izan. Nire beldurra besteek hasieratik jarriko zuten erritmoa izan zen. Baina espero nituenak erritmo erosoan joan ziren azkenean. **Zein zapora du bigarren postuak?**

Ni pozik nago, gustura. Udako oporrak aprobetxatu ditut hau prestatzeko. Lan handia egin ondoren sentitzen den hori,

SAILKAPENA ▶

Palentziako proba.

Izena	Denbora
1. Raul Garcia	4:29
2. Iker Karrera	4:32
3. Tofol Castanyer	-
4. Fernando Etxegarai	-
5. Jesus Mari Romon	-

eutsi behar izan zion amezketarrak. Horrela egin zuen eta irabazlea azkenean, Iker Karrera baino 3 minutu lehenago iritsi zen.

Sailkapen nagusian berdin jarraitzen du ordenak, hau da, Raul Garcia lehenik, ondoren Tofol Castanyer, eta hirugarren Iker Karrera. Aldatu dena, lehenengoaren eta bigarrenaren arteko aldea izan da.

Koparen azken lasterketa

Urriaren 8an Espainiako probetan azkenekoa izango da, laugarrena, hain zuzen. Sabiñanigon (Aragoia, Espainia) korrituko dute korrikalariak; 38 kilometro izango dira, maratoiak baino 4 kilometro gutxiagokoa, beraz. Karrerak hara joateko asmoa du, mendia ezagutzeko eta proba egiterakoan ustekaberik ez izateko. Sailkapen orokorrean hirugarren dago, eta aukera asko ditu Espainiako Kopako aurtengo sailkapenean horrela geratzeko.

IKASTAROAK ▶

Eskulanak, helduentzako eskola eta gimnastika

ERREDAKZIOA

Bidegoianen eta Albizturren ikastaroak abian jarriko dituzte. Bidegoianen eskulan ikastaroa urriaren 3tik abendura arte izango da. Balio anitzeko gelan izango da 14:30etik 17:00etara. 26 euro kostako da eta izena udaletxean eman behar da edo 943-68 11 28 zenbakian, hilaren 22a baino lehen.

Helduen eskola, aldiz, hilaren 18an hasiko da: 14:30etik 16:30era, balio anitzeko gelan hau ere. Izena udaletxean eman behar da.

Albizturren gimnastika ikastaroa izango da, urriaren 3tik abendura bitarte, astearte eta ostegunetan. Udaletxean izango dira, 15:30etik 16:30era. 25 euro balio du. Udaletxean 943 65 44 26 zenbakian eman behar da izena.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



LEITZA ▶ KIROLAK

2006-07 denboraldiko aurreneko 3 puntuak etxean gelditu dira

San Inaziori 2 eta 0 irabazi dio Aurrerak; zigorrak direla-eta taldea «nahiko ukituta» zegoen arren partida polita egin dute

JAIONE ASTIBIA

Leitzako Aurrera futbol taldeak 2006-07 denboraldiko lehen-dabiziko 3 puntuak eskuratu ditu, igandean Arkixkilen jokatutako partida irabazita. San Inazioren aurkako horretan, 2 eta 0ko emaitza lortu zuten Jose Luis Arrizurieta esanera aritu ziren mutilek; denboraldiari «hasiera ona» eman diotela-eta egindako lanarekin «gustura» daude Aurrerakoak, «taldean jende asko falta zela kontuan hartuz».

Igandean «partida ona» jokatuta zutela iritzi diote talde leitzarreko ordezkariak: «Kezkak gehien, lehengo denboraldi bukaerako zigorrak direla-eta taldeko 5-6 titular falta genituelako», eta ondorioz gasteen taldeko jokalariez baliatu beharrean aurkitu direlako. Horren harira «jubiletatik hiru sartu genituen aurren-aurrenetik zelaira, eta bankilo osoa». Azkenerako sei jokalariek gazte aritu ziren lanean Arkixkilen. «San Inazio areio gogorra zela eta, ia zko ligan gurekin batera aurreneko lekuetan lehiatu zen, beldur bagenin ere, oso ongi erantzun dugu. Zelaian gehiago izan gara», iritzi diote Aurreran.

Partidak lehenengo zatia izan zen nabarmentzekoa, joko kalitateari erreparatu, eta sortutako gol aukerei begira. Leitzarrek iruindarren ate aldean presioa eragin zuten, baloiaren jabetza ere nagusi izanik, bi edo hiru gol-aukera garbi-garbiak sortu zituzten. Partida hasi eta ordu erdira sartu zu-



Goian Aurrera taldea; behean, Antolin 1-0ko gola sartzerakoan. J. A.

ten 1 eta 0koa: erabateko presioarengatik eragindako eskuin hegaleko kornerra ateratu zuten aurreko denboraldian taldeko pitxitxia izan zen Antton Gomezek, zuzenean Iñaki Antolinengana jaurti, eta honek baloia ate barrenera sartu zuen indartsu.

Aurreneko 45 minututan ez zen gol gehiagorik izan. Atse-denaren ondoren, hasi eta ordu laurdenera etorri zen partida erabakiko zuen gola, 2 eta 0koa, alegia. Kasu honetan Xabi Urriagak, eraso baten ondoren talde bisitariaren atezainak aldaratutako baloi bat harrrapatu eta baloia sareetara bidali zuen. Aurrerak bigarren zati honetan ere, beste gol aukera bat edo beste sortu bazituen ere, ez zuen markagailuko alde handitzerik lortu, fisikoki

ere piska bat behera etorri zirelako, «nekeagatik». Eta San Inazio taldeak, berriz, langa jo zuten behin. Partida zuri-gorri kolorekoa, Aurreraren kolorea, izan zen gehien bat; eta 2 eta 0koa, emaitza «justua» izan zen, beraz.

Hasieratik gartsu

Lortutakoarekin konforme, ildo berean jarraitu beharko dutela diote leitzarrek: «Liga motza da aurten ateratu duten sistemari —abenduan bukatuko da— eta aurreneko hiruren artean egotekotan, ezin gaitzeko deskuidatu: abantailak orain, hasieratik lortu behar ditugu, azkenerako utzi gabe. Azken orduko lanak txarrak izaten dira», adierazi dute. Beraz, aurreneko 3 puntuak badituzte.

GIZARTEA ▶



Bidean pailazoak ere —irudian iazkoa— izanen dira umeentzat. J. A.

Bizikleta martxarekin, lasterketa ere prest

Plazaolako bide berdean igandean egingen dituzte IV. BTT martxa eta I.go maratoni erdia

J. ASTIBIA

Igande honetarako bererako antolatu ditu Plazaola Partzuergo Turistikoak, Plazaola bide berdean zeharreko mendiko bizikleta martxa eta aurten berrikuntza izanen den maratoni erdia ere.

Aurtengoarekin laugarren edizioa beteko du BTT martxak, eta ohikoa duen moduan, halaxe baieztatuta Plazaola Partzuergotik, beste behin ere Iruñea eta Donostia hiriburuak elkartzen zituen trenbide zaharreko zati berreskuratuan «inguruak eskaintzen duen paraje zoragarriarekin zehaztu nahi izan dute bertara hurbiltzen diren lagun koadrila, famili, eta kirolariak ere». Zehaztu nahi izan dute, «bizikletaren ez da lehiaketarako martxa, inguruarekin jabetu eta gozatzeko bai zik». Igandeko ekintza guztiak, *Zure esku dago aldaketa klimatikoa* lelo duen aurtengo Europako Natur Bideen Egunaren eta Mugikortasun Astearen baitan kokatu dituzte.

Horrela, bizikleta martxak hiru irteera puntu izanen ditu: bata Andoinen, 10:00etan, 40 kilometroko ibilbidearekin;

bestea Leitza, 11:30ean, 15 kilometrokoa; eta azkena, haur ttikiarentzat egokitutakoa, Lekunberrin, helmugan bertan, 12:30ean, 4 kilometrokoa. Parte hartzeko, egunean bertan eman daiteke izena, bihar arte.

Plazaolako maratonia

Eta aurten berrikuntzarik ere bada; txirringaz ez eze, bide berdean zeharreko lasterketa ere antolatu dute eta, «kirolari zailduentzat»: Plazaolako I.go maratoni erdia.

Bizikleta martxa ez bezala, frogak hau «lehiaketakoa» izanen dela iragarri dute, denborak hartzen Nafarroako Kirol Federazioko ordezkariak ariko dira eta. Leitzarrek Lekunberrin, 21 kilometroko ibilbidearekin, dortsalen banaketa estazioan egingen dute, irteera Erreka sagardotegiaren parean egingez, 09:30ean. Aurreneko 3 emakumezkoek eta 3 gizonetzkoek, 180, 120 eta 80 euro irabaziko dituzte. Izen-ematea, mugatua dena, bihar bukatzen da, 948 507 205 telefono zenbakira dei egingez edo www.plazaola.org web-orriaren bidez egin daitekeelarik.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko irailaren 13a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. AHTren aurka egingo dituzten ekitaldien baitan, larunbat honetan, hilaren 16an, 14:00etan, paellada herrikoa egingo dute. Txartelak salgai, 10 euroren truke, Itzuli tabernan.

Anoeta. Alkartasuna biltokian memoria lantzeko ikastaroa egingo dute. Hilaren 19an hasiko da, asteartean. Izen-ematea biltokian bertan edo 943 67 26 60 telefono zenbakian.

Belauntza. Outlook Express mintegia izango da KZgunean, 10:00etatik 12:00etara.

Tolosa. Udaberri dantza taldeak 15 urte gorako neska-mutilak behar ditu. Interesatuak deitu 680 682 560 telefono zenbakira.

Tolosa. La Jara elkarteak irteera antolatu du, Pilarikako zubirako, Extremadurako hainbat leku bisitatzu. Alojamentua 3 izarretako hoteletan. Prezioa: 195 euro. Informazioa: 675 707619.

Tolosa. Tolosa 750 jardunaldiak jardunaldien baitan, Nafarroa versus Gaztela hitzaldia, Julio Valdeon eta Aitor Pescador hizlariekin. 20:00etan, Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai, hilaren amaierara bitarte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18

TELEBISTA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. Adi Guri irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. Zaharrak berri.
22:00-23:00. Street.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Naturak sorturikoak

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Gero eta egun gutxiago dituzue zuen udako oporretako argazkiak bidaltzeko; ez galdu aukera eta bidali zuena



'IKARAGARRIZKO EGUZKI SARRERA' ▶

Ander Insausti Eceiza (Tolosa).

Andaluziara (Espainia) joan da pasa den abuztuan tolosar hau. «Aurtengo Abuztuan Cadiz-era joan gara eta honelako eguzki sarrera topatu genuen, gaueko 09:30ean Cadiz-eko hondartza batean. Zoratuta geratu ginen, oso leku ederra da, pena merezi du bertara joatea.», azaldu dio Anderrek HITZARI.

'EGUN ILUN BATEAN' ▶

Arantxa Tolosa Otamendi (Abaltzisketa).

Eguzkia ez zen gehiegi ageri pasa den abuztuan Euskal Herrian. Hala ere, argazki ederrak edonon topa daitezkeela erakutsi digu Arantxa Tolosa abaltzisketarrek. «Hemen bidaltzen dizuet argazki lehiaketarako argazki eder bat. Abuztuan hondartzarako eguraldirik izan ez dugunez, Orion bixitan ibili gara eta bertako hileritrik argazki polit hau atera genion Orioko hondartzari».



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Maren Barriola . Gaur 3 urte. Zorionak potxolist!!!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...